

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko ekainaren 24a. VIII. urtea. 2.250. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Udara Tolosaldean pasako duten Saharako haurrek izan dute aurten, Tolosako San Joan jaietako suziria botatzeko ardura. I. URKIZU

Piztu dira San Joan jaiak

Atzo hasi ziren Tolosako, Abaltzisketako eta Belauntzako sanjoanak, ia herri guztietan egon ziren, hala ere, San Joan suak

Tolosako suziria Saharatik uda pasatzera etorritako haurrek bota zuten; gaurkoan eskopetarien txanda izango da **o 2-3**

Kulturgintzaren inguruko gogoetak egin ditu Lukik 'Euslandia'n

Euskal Kulturgintzaren Transmisioari buruzko graduondoa oinarri hartuta idatzitako lana aurkeztu du Miriam Lukik Villabonako Subijana etxean **o 5**

Anoetako jaietan Jubilatuen Eguna ospatuko dute gaur

Igandean 00:00etan bukatuko dira Korputz jaiak Kukuaren igoerarekin; bihar Gazteen Eguna izango da, eta ekitaldi ugari izango dira egun guztian zehar **o 4**



Haur parkea izan zen atzo. HITZA



Muñazabal
MUEBLES - ALTZARIAK

San Ignacio, 2 • 20400 TOLOSA
tel/fax : 943 65 17 61



logelak • liburutegiak • sofak • koltxoak • neurriko altzariak • sarrerak • sukaldeak • dendatako altzariak • etxebizitza reformak • proiektuak ...

Jaien bigarren egunean eskopetariak irtengo dira

Gaur, eskopetariak eta bordondantzariek beteko dituzte herriko kaleak, San Joan eguna ospatzeko

Itzea Urkizu

Urteko gaurik motzena izan da pasatakoa, eta baita izpiritu zaharrrak uxatzeko erabilia ere, usadioak dionez.

Tolosan, arratsaldean hasi zen

jai giroa. Sahararik etorritako haurrak igo ziren, txupinazoa botatzeko; saharar herriari omenaldi txiki bat egin nahi izan diote horrela.

Suziriaren hotsarekin batera, erraldoi eta buruhandiak Tolosako dultzaineroekin Alde Zaharreko kaleetan barrena ibili ziren. 19:30ean, berriz, bertsozaleek hitzordua izan zuten Zerkausian, eskualdeko eta inguruko bertso-lariak aritu baitziren kantuan: Amaia Agirre, Bixente Gorostidi, Iker Zubeldia, Jexux Mari Irazu,

Adur Gorostidi eta Beñat Iguaran.

Gaur, egun handia

Gaur izango da tolosarrentzat San Joan jaietako egunik nabarmenena. Kaleak bordondantzariek jarritako lizar ostoz jantziko dira, eta San Joan zortzikoaren doinuei jarraituko diete eskopetariak eta dantzariak, prozesioan.

Arratsaldean, berriz, Arramelerako joango da udalbatza, bordondantzariek eta eskopetari konpainiek, eta eguna amaitzeko,

tradiziozko aureskua Zumar-diaundira bueltatuko da aurten.

Hiribusaren ordutegia

Sanjoanetan, hiribusak moldaketa batzuk jasango ditu ordutegia-ri eta ibilbideari dagokionez.

Gaur goizean, 10:00etatik 14:30era bitarte, ibiliko da autobusa, ohiko ibilbidea eginez. Arratsaldean, aldez, 17:30etatik 21:30ak bitarte izango da autobus zerbitzua, eta ibilbidea aldatu egingo dute, txirrindulari lasterketa dela eta. Honako bidea buru-

tuko du hiribusak gaur arratsaldean: Santa Klara, Iurraramendi (Kondeaneko aldapa), Iurre biribilgunea, Usabal kirolegia, usabal industrialdea, Amarotz, Amarotz 30, San Blas, Iparragirre, Bizkai kalea, Kondeaneko aldapa eta Santa Klara.

Tolosako San Joan jaietako egitarauaren nondik norako zehatzagoak, **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** egunkariaren webgunean daude eskuragarri: tolosa.hitza.info.

• tolosa@hitza.info



Haur sahararrek eman zioten hasiera Tolosako sanjoaneri. I. URKIZU

Iragarki laburrak

LANA

■ **Ile apaintzailea.** Tolosako ile apaindegi batek, esperientziadun pertsona bat behar du lanaldi osorako. Interesatu dutenek, dei dezatela 625 70 50 59 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria.** Amezketako taberna batean, asteburuetan lan egiteko zerbitzaria behar dute. Interesatuak deitu 605 72 77 30 telefono zenbakira.

■ **Zerbitzaria eta sukaldaria.** Tolosako ostalaritza zentro batean, zerbitzaria eta sukaldaria behar dituzte uda honetan lan egiteko. Ezinbestekoa da esperientzia izatea. Lanaldi osoko lana izango da, hau da goizez eta arratsaldez. Interesatuak deitu 661 46 31 93ra, edo bidali curriculuma info@cmujika.net helbide elektronikora. Lehen egunetan helbide elektronikoa gaizki jarri genuen (info@mujika.net); beraz, garrantzitsua da curriculumak helbide berrira bidaltzea (info@cmujika.net).

ALOKAIRUAN

■ **Apartamentua.** Peñiscolan, zazpi pertsonentzat egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean dago apartamentua. Balkoia, igogailua, aire egokitua eta bi igerileku ditu. Interesatuak deitu 617 42 89 52 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Uztailan, abuztuan eta irailean etxebizitza alokatzen da Jakan eta Peñiscolan. Interesatuak deitu 635 737 0043 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Quad motorra.** 2004. urteko Suzuki LTZ-400 Quad-a salgai. IAT-a pasata, gehigarri askorekin eta oso egoera onean. Interesatuak deitu 600 75 25 37 telefono zenbakira.



ELECTRICIDAD ELUSTONDO

- Argiztapena
- Inst. Elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak eta bakarkakoak
- Musika ambientalarentzat instalazioak, etxebizitza, denda..

Iurre Auzoa, 4 • **TOLOSA** • Tel.: 943 67 23 00
Nafarroa etorb., 13 • Tel.: 943 88 95 71 • **BEASAIN**

MATXINA

Etxekotresna elektrikoek konponketa

Laskorain, 18 • **TOLOSA** • Tel.: 943 65 00 34

"Xirimiri"

Txokolategia

Ondo pasa sanjoanaki

Erremanleri kalea, 40
20400 Tolosa Telef. 943 67 52 23



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Jon Garmendia • Txistularia

«Alardean beti ikusten ez den zerbait egingo dugu»

Asier Imaz Tolosa

Siesta eginda joan zen Jon Garmendia (Ibarra, 1979) atzoko txistularien kalejirara. Jaiei aurre egiteko indarrak prestatzea garrantzitsua izaten da, are gehiago txistuarekin ibiltzea tokatzen baldin bazaizu. Ibartarra Tolosako Udal Txistulari Bandako kidea da.

Tolosako jaien hasieran zer egiten duzue Txistularien kalejiran?

Alde Zaharrean barrena ibiltzen gara lehenik. Ondoren, zinegotzi bakoitzaren etxe sarrerara joaten gara. Bertan, txistua jotzen dugu, zinegotziari San Joan bezpera dela esateko.

Zuentzat eguna hor ez da amaitzen, ordea.

Ez. Hori egin ostean, 19:00etan, San Joan bezperak ospatzen dira. Santa Mariatik atera eta Arramelleko ermitara joaten gara.

Diana jotzen al duzue egun jai hauetan?

San Joan egunean bai, gero igandean igandetako itzulia egiten dugu.

Igandean bakarlari bezala ariko zara alardean, Garikoitz Mendizabalekin. Txistularien Alardea bi urtez behin egiten da. Garikoitzekin abesti batean aldaketa batzuk joko ditugu. Aldaketa horietan gainera, zerbait berezia egiten saiatuko gara, ohiko ikuskizunaz gain, beraz, beti ikusten ez den zerbait egingo dugu.



A. IMAZ

Txistularien Alardea hilaren 26an, igandean, izango da Berdura plazan

→ Tolosako sanjoanen azken egunean, 20:00ak iristen direnean, Berdura plazan doinu ederrak entzuteko aukera egongo da. Ikuskizun oparoa antolatu dute, bai abestien aldetik eta baita hauek landuko dituzten artisten aldetik ere.

Mendigoizaleak, Araban Bagare, Baldorba, Furra Furra, En mi viejo San Juan, Baltzen Popurria eta Txonton Piperri piezak joko dituzte besteak beste. Zuzendari lanetan Iñaki Letamendia ariko da. Emanaldiaren aurkezlea aldiz, Kike Amonarriz izango da. Ikusleak gozatzeko konpromisoa Euskal Herriko Txistularien Elkarteko eta Tolosako ikasle txistulariek; Tolosako Udal Musika Eskolako metalezko boskoteak; Alegiako Txintxarri Abesbatzak; txistulari bakarlariek; Mariaje Rekondo teklatuak eta Xefe Balerdi abeslari bakarlariak edukiko dute.

Irudia ◊ Tolosa



LAU ETA ZORTZI ERREGE

Musean jokatzeko bi aukera daude, eta atzo, Iturriza Jubilatuta eta Pentsiodunen Elkartean bietara jokatu zen. Guztira 19 bikotek hartu zuten parte txapelketan, 9 zortzi erregetarakoan eta 10 laukoan. Zubeldia anaiak izan ziren onenak zortzi erregetarako txapelketan, Lizarralde-Sarasolari finala irabazi ondoren. Lau erregetara, Calvo eta Rojo nagusitu ziren. Bigarren postuan Petisco eta Corrales osatutako bikotea gelditu zen. I. URKIZU



harpidedun izateak badu saria irabazleak

1 Otordua

Casa Julian Jatetxean
2 lagunentzako otordua

Ixiar Arratibel (Ibarra)
(eskaera egiteko, 2 hilabete)

Santa Klara, 6 • Tolosa • 943-67 14 17
www.casajuliandetolosa.com



2 Bi ile mozketa

Frida ileapaindegian

Amala Askasibar (Elduain)
Maixa Zubeldia (Irura)
(eskaera egiteko, 2 hilabete)

Letxuga kalea, 2 • Tolosa • 943-57 68 91
www.fridatolosa.com



fridaileapaindegia

3 Abentura parkea

Txindokiko Itzaleko
Mariren Zuhaitzirako
bina sarrera

Jokin Garmendia (Baliarrain)
Aitziber Olaizola (Baliarrain)
Axun Alkorta (Tolosa)

(bina sarrera izango dituzue leihatilan bi hilabetez)

Larraitz • Abaltzisketa • Tel.: 943-10 43 67 • 628-94 72 53 • www.txindokikoitzala.com



4 Aquariuma

Donostiako Aquariumean
bina sarrera



M. Luisa Aranzasti (Anoeta)
Gaztelubide taberna (Ibarra)
Eneko Arteaga (Villabona)

(bina sarrera izango dituzue leihatilan bi hilabetez)



www.aquariumss.com

harpidedun
TXOKOA hitza info

Gaur urte bete da Mikel Zalakain euskal iheslaria Korsikan hil zela



1986. urtean 25 urte zituela egin zuen ihes; lau urte preso eman eta ihesean ibili ostean Korsikan bizi zen

Erredakzioa Villabona

Mikel Zalakain Villabonan jaio zen 1961. urtean, eta gaur urtebete hil zen Korsikan. Hilabete bat lehenago, minbizia diagnostikatu zioten. Frantziar espetxeetan lau urte preso eman ostean, azken urteak ihesean eman zituen Villabonako euskal iheslariak.

Arrazoi politikoengatik, 1986. urtean, ihes egin zuen Villabonatik. Geroztik ez zen bere sorterrira itzuli. 1988. urtean emaztearekin batera Ipar Euskal Herrian atxilotu zituen frantziar polizia. Lau urtez preso egon ondoren Frantziako Gobernuak Parisera atzerriratu zituen. 2000. urtean atzerriratzea hautsi zuen, eta ihes egin zuen Parisetik. Azken urteotan Korsikan bizi izan zen.

Ospakizun bikoitzean dabilta Korputsak eta sanjoanak ospatuz

Asteazken arratsaldean lehertu zen festei hasiera eman zien suziria; igandea bitarte jai giroa izango da

Eneritz Maiz Anoeta

Udal ordezkari berriek asteazken iluntzean bota zuten Korputs jaen suziria udaletxeko balkoitik. Kukua berriz, elizako kanpandorretik jaitzi zen festei hasiera emateko. Haurren danborrada ere izan zen, eta ondoren sardina jatea egin zuten. Itzel musika taldea izan zen giroa alaitzen.

Atzo, berriz, San Joan bezperako suaren inguruan dantza izan zen nagusi, egun guztian zehar Korputs jaietako umeen eta mozoen eguna ospatzen aritu eta gero.

Gaur Jubilatuen Eguna ospatuko dute eta meza, bazkaria eta dantzaldia izango dituzte. 10:00etan, esku pilotako herri txapelketa egingo dute, eta 12:30etan apar festa izango da. 18:00etan playback-a egingo dute, eta 21:00etan, ezker abertzaleak antolatuta saiheski jatea egingo dute. 00:00etan, 121 Crew eta Itziarren Semeak taldeen kontzertua izango da.

Larunbatean Gazteen Eguna izango da. Herri lasterketarekin hasiko dute eguna. 15:30ean Mus Txapelketa eta 17:00etan, ginkana eta ume jolasak izango dira.



Kukuaren jaitzierarekin batera hasi ziren danbor soinuak eta Loatzoko txarangaren doinuak. E. MAIZ

18:00etan gazteen kalejira izango da, eta 19:00etan sagardo dastaketa egingo dute herri afariaren aurretik. 23:30ean gazteen dantza izango da, eta ondoren dj Bull.

Anoetarren arteko giza proba Igandea Gorritiren festibalarekin hasiko dute zezentxoak eta poneyak izango dira plazan. 11:00etan, paleta txapelketako finalak jokatuko dituzte. 17:30ean herri kirolak izango dira, eta anoetarren arteko giza proba ikusteko aukera izango da plazan. Ondoren Gabezin taldearekin erromeria izango da. 23:00etatik aurrera berriz, musika izango da Gabezinekin eta 00:00etan Kukuaren igoera egingo dute festei amaiera emateko.



Herriko plaza jendez bete zen, Kukuaren jaitziera ikusteko. E. MAIZ



508 BERRIA

*Prestutasuna eta teknologia
Zirara eta exijentzia
Sorkuntza Berriko berrikuntza*



*Ez bilatu gehiago,
Tolosa Motorren zure amesteko autoa daukagu,
508 Peugeot berria.*

TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-508



Jubilatuek Toka Txapelketan parte hartu zuten, atzo. HITZA

ESKAINTZA

2x1

SUKALDEA EROSTEN BADIGUZU,
GUK LOGELA EDO EGONGELA
OPARITUKO DIZUGU*

Nahiago baduzu sukaldako altzarrien gainekoa oparitutako dizugu!

* Logelak eta egongelak hautagai
* Gutxieneko 6000€-ko erosketa egitean

San Frantzisko Kalea 14 • 20400 Tolosa
Tel./Faxa: 943 53 57 16 • bellepoquesi@gmail.com • www.belle-epoque-decoracion.com

SEGUROS
BILBAO

Zumardi

aholkularitza integrala

Sanjoan zoriontsuak opa dizkizuegu!

Laskurain, 8 behea • TOLOSA
Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

Kulturgintzaren transmisioari buruzko gogoetak, 'Euslandia'n

Miriam Lukik bildu ditu hainbat gairi buruzko hausnarketak atzo aurkeztu zuten argitalpenean

Imanol Garcia Villabona

Mondragon Unibertsitateak antolatzen duen Euskal Kulturgintzaren Transmisioari buruzko bigarren graduondoa oinarri hartuta, Miriam Lukik *Euslandia* liburuan hainbat gogoeta jaso ditu euskarari, kulturgintzari, politikari, gizarteari, transmisioari, ... buruz.

Argitalpenaren aurkezpena atzo egin zuten Villabonan, Subijana etxean. Egileaz gain, argitaratzaileak ere bertan izan ziren: Lanku Berto Zerbitzuetako Mikel Mariskal eta Mondragon Unibertsitateko Julen Arexolaleiba. Azken hau, graduondoko zuzendaria.

Kulturaren hainbat aditu igaro ziren graduondotik eta bai aditu



Miriam Luki, *Euslandia* liburuaren eskuan duela. I. GARCIA

horiengatik, bai ikasleengandik jasotako hausnarketak, zein berari sortutakoak jarri ditu liburuan Miriam Lukik. Horrez gain, hainbat autoreen testuak sartu ditu obran. Lau atal nagusitan jarri ditu hausnarketak eta ondore-

go tituluak jarri dizkie zatiei: Hasi- siera, transmisioa, euskal eta kultura.

Mikel Mariskalek aurkezpenean azaldu zuenez, «lan fina da, hausnarketara eramaten duena, emozioz eta sentipenez blai, mimos maketatu dena». Julen Arexolaleibak «luxua eta oparia» zela esan zuen, eta lehenengo aldiz irakurri zuenean «asko emozio-natu» zela.

Lanari buruz emozioz hitz egin zuen Lukik. Graduondoa jasotako apunteetatik abiatu zen, baina hariak etengabe ateratzen zitzaizkion. «Graduondoko adituek esandakotik hariak ateratzen ziren eta gero horri buruz hausnartzerakoan hari gehiago ateratzen ziren», zion Lukik. Liburuak, gutxienez, orriak hainbeste gogoeta ditu. «Liburuak ez da perfektua, baina barrutik idatzita dago», gaineratu zuen egileak. Aurkezpenaren liburuaren hasieran idatzitako tesia azaldu zuen: «Egiteko baino pentsatzeko garaia da, / pentsatzea kontzientzia hartzea da, / egiteko prestatzea, / egitea».

Irudia Amezketak



AMAIERA «EZIN HOBEA»

Zumadi eskolak ikasturte amaierako festa egin du lehenengo aldiz, eta balantze «ezin hobea» egin dute. Ikasleen emanaldiak, bazkaria, jokoak, helduek egindako antzezlanak eta Keiran taldearen kontzertua izan zituzten. Bigarrena antolatzeko gogoz geratu dira. HITZA

→ Laburrak

Festetako herri afarirako txartelak salgai

ALEGIA Sagardotegi menua izango dute herriko festetako afarian, uztailaren 16an. Txartelak salgai daude kultur etxean eta Jubilatua, Hilario berri, Eizmendi eta Kurpil tabernetan. Haurren herri bazkarirako, uztailaren 14ean, txartelak salgai daude kultur etxean.

Espaloien zati bat itxiko dute, obrak direla-eta

IBARRA Datorren asteartean, erabilera anitzeko eraikinaren eraikuntza dela eta, oinezkoen pasabidea aldatuko da Ibarako Euskal Herria kalean, 16 eta 20 zenbakien artean. Tarte horretan espaloia itxiko da eta beste aldeko espaloira joan beharko du oinezkoak. Obrak ekar litza-keen arriskuak ekiditeko erabaki du udalak desbideratze hori egitea. Gutxi gorabehera hila- bete iraungo du aldaketa horrek.

San Juanak.
Zure jaiak. Gure jaiak.



kutxa
Zugandik zugana

→ Laburrak**Ordosara irteera antolatuta du Oargik uztailean**

TOLOSA › Uztailak 1, 2 eta 3an Oargik Casco De Marbore-ra (Ordosa) irteera antolatuta du. Izena emateko 688 69 86 42 zenbakira deitu behar da, edo info@oargi.org helbidera idatzi. Izena emateko 20 euro aurreratu behar dira, Euskadiko Kutxako 3035 0028 11 0281141038 (izena jarri) zenbakian. Mendiko arropaz gain *vivac* egiteko funda edo denda eraman behar da; lozakua eta janaria berotzeko labexka.

2.000 euroko kostua duen bidaia zozketatuko dute

TOLOSA › Tolosa & Co San Joanetarako promozioa egiten ari da. Elkarteko denden artean 2.000 euroko kostua duen bidaia zozketatuko dute. Irabazleak erabakiko du nora joan nahi duen. Erosketak egitean zenbakiak banatuko dituzte eta hilaren 28an egingo dute zozketa. Irabazleak bi aste izango ditu zenbakia aurkezte, bestela, beste zozketa bat egingo luke.

SOS Euskadiko Haur Lapurtuak aurkezpena

TOLOSA › Anadirretik irtetea aztertuko dute uesteko haur lapurreten kasuak kaltetutakoek bihar, Donostian egingo dute bileran. Horrekin lotuta, SOS Euskadiko Haur Lapurtuak aurkeztuko dute. Juan Bautista Aranzabe, *Mate*, tolosarra zuzendaritzaren barruan aurkitzen da, eta bilkurara joateko deia luzatu die kaltetuei.

Azken ostiraleko preso eta iheslariak gozoan

POLITIKA › Hilabeteko azken ostiralean elkarretaratzeak egingo dituzte Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan. Ohiko ordu eta lekuetan elkartuko dira euskal preso eta iheslari politiko-koen eskubideen defentsan. Amnistiaren Aldeko Mugimendutik elkarretaratzeetan parte hartzeko deia egin diete herritarrei.

Diego Riaño ez da aizkora kanporaketan egongo

LEITZA › Diego Riaño III. Mailako Aizkora Txapelketaren lehen kanporaketa jokatzeko zen, gaur, Hernanin. Osasun arazoak dituen ezin izango du kanporaketan parte hartu leitzarrak.

Binefarreko Titiriteroak omenduko ditu Topic-ek

TOLOSA › Binefarreko Titiritero-aren omenez erakusketa zabalduko dute Topic-en hilaren 20ean. 19:00etan *Dragoncio* ikuskizunaren antzezpina egingo da Euskal Herria plazan lehenik, 20:00etan egingo baitute inaugurazio ekitaldia.

Larraitzen egingo den mosaikorako deialdia

ANOETA › Anoetako Udalak uztailean Zan Larraitza joateko deialdia luzatu du. Bertan, mosaiko bat osatu nahi da. Hilaren 29an entsegua egingo dute Larraitzen, 18:00etan. Mosaikoa osatzeko 2.000 pertsona behar dira. Joan nahi duenak harremanetan jarri behar du ondorengo telefono hauetan: 652 775 923/649 311 757/652 775 923 (Anjel Oiarbide) edo 609 902 555 (Dani Oiarbide).

Zizurkilgo jaietan danborrada egin nahi dute aurtengoan

Jaiei begirako dantza ikastaroan eta Festa Batzordean parte hartzeko deia ere luzatu dute

Asier Imaz Zizurkil

Zizurkilgo Festa Batzordeak hainbat deialdi plazaratu ditu. Alde batetik, azken urteetan festetako azken egunean ohitura bihurtu den dantza emanaldirako entsegua hasi dituztela azaldu dute. Ostiraleroko 19:30ean elkartzen dira Joxe Arregi plazan. Ondo pasa nahi duen oro gonbidaturik dagoela ere esan dute.

Bestetik, aspaldiko ohiturari berriro heltzeko asmoz, eta kudri- batzuen proposamenez, herritarren danborrada osatzeko asmoa dagoela ere azaldu dute. Herriko tabernetan parte hartu nahi dutenek izena eman dezaten zere- rrendak jarriko dituztela esan dute. Horrekin batera, herritar- rrek danborradara animatu nahi izan dituzte.

Azkenik, jaiak bere osotasune- an antolatzeko bilerak asteazke- nero egiten dituztela gaineratu dute Zizurkilgo Festa Batzorde- tik. Atxulondo Kultur Etxeak el- kartzen dira batzordeko kideak, 19:00etan. Jaiak herritarren arte- an antolatzeko helburua dutenez, zizurkildar guztiak deitu dituzte asteazkeneko egiten duten Festa Batzordea.

Zizurkilgoan jaiak abuztu- an ospatzen dituzte, eta beheran, irailean.

Irudia Tolosa**LASKORAINGO ABESBATZA**

Laskorain ikastolako abesbatza disko baten grabaketan murgilduta dago, eta diskoko azken lau abestiak lehengo astean grabatu zituzten Leidor antzokian: *Donna donna*, *Viva la vida*, *Yau samayae* eta *Doeba*. Juantxo Zeberio (pianoa), Antton Telleria (perkusioa), Itsaso Etxebeste (baxua) eta Jon Arruebarrenaren (saxofoia) laguntza ere izan zuten. Ikasturte osoan zehar grabatu dituzte disko- ko hamabi abestik, eta azaroan argitaratzeko asmoa dute. HITZA

Irudia Berrobi**AITON-AMONEI OPARIA**

Berrobiko eskolan, azken hiru hilabeteetan, ikasleen aiton-amonak izan dira euren garaiko bizipenak kontatzen. Ikasle zaharrenek elkar- ritzketak egin dizkie, eta baita euren gaztetako argazkiak bildu ere. Informazio guztiarekin liburuxka bat atera dute. Atzo aiton-amona bakoitzak bere biografia jasotzen zuen liburuxka jaso zuen ikasleek eskutik. Irakasleek garai bateko eskola nolako zen antzeztu zuten, eta ondoren erromeria egin zuten. M.UGARTEMENDIA

Hilberriak

-Eskeronak-

**Juliana
Auzmendi
Aldasoro**

Familiaren partetik, eske- rrik asko doluminak eman eta momentu latz hauetan lagundu diguzuen guztiak.

ORDIZIA, 2011ko ekainaren 24a

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakoitzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com

Alkateen elkarrizketak →

Pili Legarra ◊ Asteasuko alkatea

«Partaidetza gauzatuko dugu batzordeen bidez»**Eneritz Maiz** Asteasu

Pili Legarra (Asteasu Batuz) asteasuarra izango da hurrengo lau urteetan herriko alkatea. Ongi ezagutzen du udalaren barne funtzionamendua, bertan lan egin baitu azken 25 urteetan.

Nolatan animatu zinen alkate bezala aurkeztera?

Orain lau urte egin zidaten eskaintza lehenengoz. Orduan garbi izan nuen ez nuela horretarako nire bizitzan tokirik. Orain, berriro hainbat tokietatik egin zidaten eskaintza; hiru talde hurbildu zitzaizkidan. Ondo pentsatu ostean animatu nintzen. Udalean 25 urte daramatzat langile gisa lanean, eta ondo ezagutzen dut barne funtzionamendua. Ez da leku arrotza niretzat. Horrek asko laguntzen du, erabaki bat hartzeko garaian. Gauzak beste era batera egiteko gogoan izan dut beti, eta hori gauzatzeko erabaki tokietan egon behar zara.

Aldaketarako beharra ikusten zenuen beraz.

Bai. Aldaketa baten beharra oso nabaria zen. Agintean hamasei urtez talde politiko berdina egon da eta normala da horrelako nahia sortzea. Jendeak zerbait berria behar zuen.

Zein izango da zure legealdiko lanildo?

Oso garrantzitsua ikusten dugu Asteasuko herria aztertzea, benetako diagnosi bat egitea. Ez daukagu inongo daturik gaur egun. Ikusi egin behar dira herriaren beharrak, herriaren interesak, herriak zer norabide hartu behar duen hemendik 10 urtera,...Gazte ugari ditugu herrian, eta horrek 10-15 urtetara hainbat behar sortuko ditu, eta horri erantzuna emateko aurretik egin behar dira plangintzak.

Zinegotzien artean banatuko dituzue lanak?

Lanak banatu egin behar ditugu, ez dut ulertzen aginte piramidala.

Nire ustez ardurak banatu egin behar dira, eta zinegotzi bakoitzak bere eremuaz arduratu behar du. Autonomia behar du, eta ondoren, horren gainetik batzorde guztien koordinazioa egingo dugu.

Batzordeen bidez egingo duzue lan?

Ez dut ulertzen udal bat bere kabuz proposamenak egiten ditutena, herriak zer behar duen, herriari zer eraiki behar den,...Behetik hasi behar da lanean, eta horretarako diagnosi serio bat beharrezkoa da. Horren ondoren egin behar dira programak, eta hainbat herriko atalekin eztabaidatu eta adostu behar dira. Udala denon ardura da. Guretzat aipatzen partaidetza oso garrantzitsua izango da, baina ez hitza soilak bezala, baizik eta egitura konkretu bat izango duen partaidetza. Jendeari bideak eman behar zaizkio, eta ez gombidapena soilik luzatu.

Ba al duzu proiekturik esku artean?

E.MAIZ

Programa konkretu bat diagnosiaren ondoren zehaztuko dugu. Hainbat eta hainbat ideia ditugu, baina martxan jartzeko datuak aztertu behar ditugu. Oraingoz, batzordeen bidez partaidetza gauzatzen hasiko gara. Hainbat asmok lehentasuna izango dute, adibidez, Asteasuk garraio publikoan duen gabeziari aurre egitea. Hezkuntzak eta kulturak garrantzia izango dute. Gazteei aukera emango diegu kultur elkarte bat martxan jartzea bultzatzu. Zaharren beharrei ere erantzuna eman beharko diegu. Instalazio egokiak ditugu baina gutxi aprobetxatzen direnez, buelta emateko programak jarriko ditugu.

Krisi urte hauetan nola aurkitzen da udala?

Beste hainbat udalen antzera Asteasuk ere zorrak ditu, eta horiei aurre egin beharko diegu. Ez dira garai onak dirua pilatzeko. Beraz, arrazionaltasunez jokatu beharko dugu eta ahal den heinean gastua kontrolatu. Orain ez da erakuntzaren garaia, hori amaitu da, eta beste gauza batzuk egin beharko ditugu, zerbitzuen atalean gehienbat. Dena dela, gazte ugari ditugu herrian, eta horiei begira etxebizitzaren garaia ere heldu behar diegu. Gazteek ordaindu ditzaketen adinako etxeak behar dituzte, eta horretan administrazioaren erantzukizuna du.

Xabier Mujika ◊ Larraulgo alkatea

«Plan orokorra bukatzea izango da legealdi honetako lanik zailena»**E. Maiz** Larraul

Aurreko legealdian bezala, Xabier Mujika (Larraul Aurrera) izango da hurrengo lau urteetan ere Larraulgo alkatea. Hauteskunde hauetan lehen aldiz, herriarrez osatutako bi zerrenda izan dituzte bozkatzeko.

Lau urte alkatezaren ostean, beste lau urte dituzu aurretik.

Aurten lehen aldiz, beste urteekin alderatuta bi talde aurkeztu ginen. Ez genekien zer gertatuko zen, eta gure taldea pozik geratu da batik batik herriaren partaidetzarekin. Ia herri osoa etorri zen bozkatzera. Herriak hitz egin duela iruditzen zaigu, eta herriak

udalean gu egotea nahi izan badu, ilusioz eta gogoarekin helduko diegu. Batzuk jarraitu egingo dugu, eta beste batzuk berriak izango dira.

Talde lanean ariko zarete?

Nahiz eta hauteskundeetara bi zerrendatan aurkeztu, talde bezala hasi gara lanean. Lehen bost lagunekin egiten genuen bezala, orain zazpirekin egingo dugu. Hurrengo egunetan elkartuko gara, eta orain zazpi izanda lanak banatzeko aukera gehiago izango dugu.

Aurreko legealdiari begiratuta, nolako da egiten duzuen balorazioa?

Udaletxean esperientziarik edukitu gabe sartuta, niri nahiko gogorra egin zait lehenengo legealdia.



E.MAIZ

Eta egin duzuenari edo lortu ez duzuenari begira?

Ekitaldi, zerbitzu eta azpiegituraren aldetik, herriaren nahi egiten ahalegindu gara, eta herria hobetzen saiatu gara. Ahal den neurrian, lortu dugula uste dugu. Gauza batzuetan hanka sartuko genuen baina gu gure aldetik gauzak ahalik eta ondoen egiten saia-

tu gara. Nahi adina gauza egiteko udaletxe guztiak bezala ekonomikoki zailtasunak ditugu. Eta horren adibide edo izan daiteke, herriak berriz ere gu aukeratu gaituela.

Orain beste lau urte dituzue aurretik?

Guk ez dugu programa politikorik aurkeztu. Baloratu duguna

izan da, martxan zeuden proiektuei ekingo geniola. Eta urtero-urtero aurrekontuak egitean, dau den baliabideen arabera eta herriaren gabezien arabera egingo dugu lan. Oso zaila da aurretik zerbait egingo dugula konprometitzea, ekonomikoki oso lotuta gaudelako. Gure erronka handiena, aurreko legealdian hasitako plan orokorra bukatzea izango da. Diagnostiko bat egin zen, eta plan orokorrekin hasita gaude. Hori aztertzen ari ginela, hauteskundeak gerturatzen ari ziren, eta geratu egin genuen. Orain taldea osatu eta antolatzen garenean, berriaz ekin behar diegu. Hori izango da lanik zailena.

Beste proiekturik baduzue?

Diru laguntza bat geratu zaigu zintzilik Landagipuzkoa32tik. Kultur Etxeari irtenbide bat bilatu nahi genion, herriarentzako lokalik ez zaigulako geratu. Proiektu hori gauzatzen edo aurrera eramaten saiatuko gara. Plan orokorra egin beharra dugunez, ez dugu aukera handirik izango. Kostu handia du egiteak eta gainerako proiektuak baldintzatuko dizkigu. Udaletxea dagoen egoeran oso lotuta gaude gauzak egiteko. Herriaren beharrak lehenesten saiatuko gara, eta aurrera eramaten baina oso oso zaila izango da.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

- **Ibarra.** L. Lejeune, Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

BIHAR

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 18.
- **Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-
nen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Urte askoan!

Araia Mendia Igerategi (Asteasu).
Gaur 6 urte. Zorionak gure
printzesari! Txokolatzeko
muxuak, aitatxo, amatxo eta
Unairen partetik.



Igotzeko geratzen zaizkigun gailur guztiengatik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurrak

AMAROS jatetxea
Amaroz industrialdea • Tel.. 943 67 12 96 • Tolosa

**ESTALDUREN ERABERRITZEA
FATXADA ETA ETXEBIZITZAK
IGELTSERITZA ORO HAR**

**PAGOLA
ERAIKVNTZAK, S.L.**

Izaskun Bidea, 7 behe • **20400 TOLOSA** (Gipuzkoa)
Tel.: 943 67 57 53 • Faxa: 943 67 02 33
Sakelakoa: 606 98 11 35 - 606 98 10 80

Erausketa zerb-itzu berria martxan!
Erausketaz abo proiektetik in.

elduaen **SAN JOANETAN
ZUREKIN BAT!**

UZTAILA EDO/ETA
ABUZTUAN ZEHAR
IKASTARO TRINKOAK

Hizketas
desberdinen
sukerra zatsak:

ingurak, sukerra,
frutak, abar-
rains, salata...

**LUDOTEKA
UZTAILEAN**

2011
BEASAIN
KULTURAN

www.elduaen.com

DONOSTIA: T. 943 31 07 00
BILBAO: T. 943 27 29 83
TOLOSA (4. omenak): T. 943 67 47 20

LAGARTE: T. 943 37 27 81
LEZAMA: T. 943 25 08 08
VELLA ALDUA: T. 943 04 04 78
ALBOLA: T. 943 66 57 26

Artisau Jogurtak

Mahala

1924
**ECEIZA
TOLOSA**

Pablo Gorosabel, 34 • Tel.: 943 652089
San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916
• TOLOSA •
posta elektronikoa: pasteceiza@euskalnet.net

Sanjoanak ondo pasa!